



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2010EKO OTSAILAREN 11KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Espainiako armada egun Afganistanen jarduten duen munduko tropatik berehala ateratzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0111]

ES, ETP eta Mistoa-UPyD taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

11/2010

"1. Eusko Jaurlaritzak bere babes eta elkartasuna adierazten die Afganistanen bake-misioan dauden Espainiako tropei eta bere familiei, eta animatu egiten ditu tropa horiek bertara bidaliak izan zireneko zereginak egiten jarrai dezaten, modu horretan herrialde horren garapena eta berreraiketa ahalbidetuz. Era berean bere saminik handiena agertzen du zerbitzuan hildako 91 militarrengatik eta bere babesik eta elkartasunik zintzoena helarazi nahi die beraien familiei.

2. Eusko Legebiltzarrak bere babes eta ematen dio Espainiako Gobernuari, Nazio Batuen bake-misioaren testuinguruan Espainiako armada egun Afganistanen jarduten duen munduko tropa mantentzeko erabakiari dagokionez eta eskatzen dio lehenetsi dezala Afganistanen egonkortasuna, berreraikuntza eta barne adiskidetzaren alde egingo duen eskualde mailako estrategia zibil eta politiko baterako trantsizioa.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 11 DE FEBRERO DE 2010

1. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, relativa a la retirada inmediata del Ejército español del contingente militar mundial que actualmente opera en Afganistán. [09\11\02\01\0111]

Aprobada la enmienda de transacción suscrita por los grupos SV, PV y Mixto-UPyD.

11/2010

"1. El Parlamento Vasco manifiesta su apoyo y solidaridad con las tropas españolas destinadas en misión de paz en Afganistán y con sus familiares y les anima a seguir desarrollando las tareas para las que fueron enviados, posibilitando así el desarrollo y reconstrucción del país. Así mismo muestra su más profundo dolor por los 91 militares muertos en acto de servicio y desea trasladar su más sincero apoyo y solidaridad a sus familias.

2. El Parlamento Vasco apoya al Gobierno de España en la decisión de mantener y aumentar las tropas españolas dentro del contingente militar mundial que opera en Afganistán bajo misión de paz de la ONU y le insta a priorizar el tránsito hacia una estrategia civil y política regional que favorezca la estabilidad, la reconstrucción y la reconciliación interna en Afganistán.





3. Eusko Legebiltzarrak Libanon, Afganistanen, Bosnia eta Herzegovinan, Kosovon, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Txaden dauden Espainiako militarren ahalegin eta lan handia".

3. El Parlamento Vasco agradece el gran esfuerzo y trabajo de los militares españoles destinados en Líbano, Afganistán, Bosnia-Herzegovina, Kósovo, República Democrática del Congo y Chad".

2. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Barne-merkatuko zerbitzuen gaineko (2006/123/EE) direktiba Euskadin aplikatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0139]

2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, sobre la aplicación en Euskadi de la directiva (2006/123/CE) relativa a los servicios en el mercado interior. [09\11\02\01\0139]

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

Aprobada la enmienda de transacción suscrita por los grupos SV y PV.

12/2010

12/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

"El Parlamento Vasco insta el Gobierno Vasco a:

1. Barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Direktiba Euskadin bete dadin lortzeko, Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan, lege-, arau-, administrazio- eta antolaketa-neurriak hartuta.

1. Proseguir, en el marco de las competencias de la Comunidad Autónoma, con su labor de transposición en Euskadi de la Directiva (2006/123/CE) relativa a los servicios en el mercado interior, con medidas legales, normativas, administrativas y organizativas.

2. Leihatila bakarra sortzeko, Administrazioko beste mailetan sustatzen direnekin lotua, eta beste euskal erakundeekin batera lan egiteko, baita foru-aldundi eta udalekin ere, Eudelen bidez. Guztiek elkarri lagunduko diote, Direktibaren helburuak betetze aldera.

2. Crear una ventanilla única propia, interconectada con las que se promuevan en los distintos niveles administrativos, y a colaborar con el resto de instituciones vascas, diputaciones forales y ayuntamientos, a través de Eudel, prestándose asistencia mutua para cumplir los objetivos de la directiva.

3. Direktibaren eduki eta mugaz gaindiko eraginei buruz informatu eta sensibilizatzeko kanpainak egiteko, herritar guztientzat, baita, bereziki, zerbitzu-enpresentzat, zerbitzuen sektoreko enpresa- eta merkataritza-arloko beste zenbait erakunde, antolakunde eta elkarterekin batera lan eginda.

3. Desarrollar, en colaboración con otras instituciones, organizaciones y asociaciones empresariales y comerciales del sector servicios, campañas de información y sensibilización en torno a los contenidos de la directiva y sus efectos transfronterizos, dirigidas a la ciudadanía en general, y a las empresas de servicios en particular.





3. **Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, hizkuntza-eskakizunak direla-eta Euskadiko Administrazio publikoetako zerrendak aldatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0144]**

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

13/2010

"Esko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Ezar ditzala behar beste neurri funtzio publikoan sartzeko baldintza berdinen printzipioa bermatze aldera.
2. Neur dezala zein izan behar den euskararen ezagutzak hurrengo EPEetan meritu gisa izan behar duen balorazio egokia, meritu profesionalei dagokien puntuazioarekin orekatze aldera.
3. Azter dezan euskal Administrazio publikoko lanpostuen zerrendan jarri diren hizkuntza-eskakizunen egokitasuna. Horretarako, kontuan hartuko dira zerbitzu-beharrak, zona bakoitzeko eskaria eta administrazio publikoekin EAEko bi hizkuntz ofizialetako batean zein bestean jarduteko eskubidea bermatu beharra".

3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, sobre reforma de las RPT en la Administración pública vasca en lo referente a los perfiles lingüísticos. [09\11\02\01\0144]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

13/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Adoptar cuantas medidas sean necesarias para que se garantice el principio de acceso en condiciones de igualdad a la función pública.
2. Realizar una valoración adecuada del conocimiento del euskera como mérito en las futuras OPEs de forma que busque el equilibrio con la puntuación correspondiente a los méritos profesionales.
3. Analizar la idoneidad de los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo de las RPT de la Administración pública vasca, en función de las necesidades del servicio, de la demanda en cada zona y de la necesidad de garantizar el derecho a relacionarse con las administraciones públicas en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la CAV".





4. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Jaurlaritzak 2009-2013ko legegintza-egutegian jarritako konpromisoak betetzearen edo, hala badagokio, aldatzearen inguruko memoria bidaltzeari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0154]

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

14/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2009-2013 IX legealdiko legegintza-egutegia betetzeari edo aldatzeari buruzko txostenak bidali ditzala urtean behin Ganbera honetara".

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la remisión por parte del Gobierno de la memoria sobre cumplimiento o modificación, en su caso, de los compromisos establecidos en el calendario legislativo 2009-2013. [09\11\02\01\0154]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

14/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a remitir anualmente a esta Cámara informes sobre el cumplimiento o modificación del calendario legislativo de la IX Legislatura 2009-2013".

5. Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Renove planak zehazteari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0174]

Ezetsi egin da.

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre la concreción de los planes Renove. [09\11\02\01\0174]

Rechazada.

6 (*deialdiko 7.*). Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, ikastetxeak oporretan direnerako astialdi-jarduerak antolatzeari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0164]

15/2010

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak:

1. Euskal administrazio publikoei eskatzen die Familiei Laguntzeko Legea betetzeko behar diren neurri guztiak har ditzatela, kultura, kirol, aisia eta denbora librearen arloetan dauden ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea

6 (*7 de la convocatoria*). Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la organización de actividades de ocio durante las vacaciones de los centros escolares. [09\11\02\01\0164]

15/2010

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV.

"El Parlamento Vasco insta:

1. A las administraciones públicas vascas a que tomen todas las medidas oportunas, a fin de cumplir la ley de Apoyo a las Familias, facilitando el acceso a los bienes y servicios existentes en materia de cultura, deporte,





erraztuta, bai orokorrean, bai bereziki eskola-oporraldietan, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzeko zerbitzu gisa, familien beharren arabera.

2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio administrazioek eta bestelako erakundeek EAeko haurren oporraldirako antolatu ohi dituzten aisia eta denbora libreko baliabideen mapa egin dezala datorren ikasturtea hasi baino lehen, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea erraztuko duen jarduera-programa bat egiteko balioko duena.
3. Azter eta iker dadila, 2011-2015 aldirako Familiari Laguntzeko III. Plana diseinatuko duen lantaldearen barruan, euskal administrazio guztiek bultzatzen duten oporretako astialdi-eskaintza, hala plangintza ordenatu bat egon dadin eskaintzen arteko gainjartzeak edo hutsuneak eragotziko dituen.
4. Sar ditzatela aipatutako planean hezkuntza, aisia eta kulturaren inguruko neurriak, oporraldian direnean norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzeko".

ocio y tiempo libre con carácter general y en periodos vacacionales escolares en particular, como servicio que contribuye a facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, en función de las necesidades familiares.

2. Al Gobierno Vasco a la elaboración antes del comienzo del próximo curso académico de un mapa de recursos de ocio y tiempo libre en periodo vacacional destinados para los niños y niñas de la CAPV, que vienen realizándose por las distintas administraciones y entidades, de tal forma que sirva para la elaboración de un programa de actuación que facilite la conciliación personal, familiar y laboral esta materia.
3. A que, en e seno del grupo de trabajo que diseñe el III Plan de Apoyo a la Familia (2011-2015), se estudie y analice la oferta de ocio vacacional que impulsan las diferentes administraciones vascas, de tal forma que exista una planificación ordenada que evite el solapamiento o las lagunas posibles entre unas ofertas y otras.
4. A que incluyan, dentro de dicho Plan, las medidas relacionadas con la educación, el ocio y la cultura que ayuden a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral en periodo vacacional".

